

## OTO ETA POTOTO

### Pototo'ri buruz zerbait.

Nor dala Pantaleon?

Pototo'ren aita.

Sasi-abogadu. Eskribitzen eta irakurtzen eskribau batek aña dakiena...

Baserriekin arrobiak ba ebazan.

Bi itzai eukozan arrobiaren serbitzurako, bi lau errueda-ko gurdiak eta lau idi galantak.

Aberatz-aberatzak une onetan ez dira; ondo bizitzen oituak, bai... Eta, obeto naiean beti.

Bartolok, berriz, Naparroako baba beltza urdai zati bategaz izan ezkerro, ez eban bere burua Ingalater 'a'ko Erregearekin kanbiatuko... Pantaleon beste era batekoa dogu: baba beltza guztatzen jakon, baña, Aginaga'ko angulak naiago.

Zazpi seme-alaba zituen Pantaleon'ek; danen artean zaarrena, Pototo.

Zaarrena eta arroena; Oto'ren kidekoa.

Oto eta Pototo, kidekoak zirenez, alkarrekin ibilli oi ziran beti: bai mendian sagar-lapurretan, bai ibai-ertzean loinatan, baita pagadietan txori-abietan be. Makiña bat aldiz alkarrekin burrukan egindakoak:

—Emoidak sagar muxugorri ori!

\_ Neuk arrapatu dot.

— Emango ala?

—Ez!

—Tok, ba.

Esanarekin batera jartzen eban Pototo'k bere ukabilla Oto'ren buruan. Burruka asita egoan. Pototo'k janari obeak etxean; sei erralde geiago gorputzean, eta jakiña dago, aizkenerako artzekoak Oto. Txikia izan arren, makurgaitza zan. Alan, be, sagar-muxugorria Pototo'rentzat:

—Orretara ez dago eskubiderik!

—Arraskate!

—Au ez dok gizalegea!

— Arraskate!

Aundi zaleak ziran Pototo'renean; dana zan aundia etxe aretan: eurok aundiak, etxea aundia, soloak aundiak (iñoren eskuetan); jan-edanak aundiak; arrokeriak aundiak... eta, aizkenerako, zuloak be aundiak.

Iru baserri izan eta irurak jan.

Urte aretan erriko festarako bersolariak ekarri ebezen.

- Bai, onek tripazai ederrak...! Jan eta eran, besterik, zer?

Alan ari zan Pantaleon taberna-zuloan. Bigaramonean, bersolariak Erriko-etxetik kantari eta orra or plazan agertu gure Pantaleon, tantaia bezin tente. bi eskuak patrikeretan...

Ordurako bersolaria Pantaleon'ek esandakoa jakinda egoan, eta gure gizona plaza-ertza zapaltzerakin batera, asi zan kantuan goiko balkoietik, berari begira:

*Jan-edatera gu gatoztela*

*Atzo esan zenduan zuk*

*Janarekin batera ondotxo*

*Egingo gendula zurrut:*

*Iru baserri janda ba'nego*

*Eingo neuke pelotan uts;*

*Barka zaidazu esandakoak*

*T'iñolaz be ez zaputz.*

Ez zuen geiago entzuteko astirik artu gure Pantaleon'ek. Bertan jira eman eta an doia marmar bizi batean añaniñuka eta maldizioka... Ekaitza bera baño asarreago.

Ez zuten bera baretu beuren lagunek:

—Bersolarien esanei ez diok kasurik egin bear...

—Urte eta mozkor galantak! Txerri alenak... Alkatiak erru guztiak.

Zetarako olako jendea errira ekarri? Lotsagabeko jendea! Neu bezelako gizon prestu bateri, nolan esan lezaizkioke orrelako astakeriak?!

Aundizat eukan beure burua, eta miñ ematen barruko arrokerian bersolarien berbak. Arreskeroz gorroto zien bersolari eta erri xeeraen kultura-agerpen guztiei.

Oto optimista eta baikor utsa dogu, ez bait dau prakak lotzeko gerrikorik eramaten... Eramatekotan be, lokarri eta txikot zaarren bat... Gaitz-erdi botoiak eten barik badauz...

Pototo alderantziz, kalera irtengo ba'dau, prakak lotzeko gerriko eta tiranteak, biak batera, bear... Pesimista eta ezkor utsa. Beti segurutik joka bear...

Oto biotz oneko gizona da; sentzunik arinxamarra, begi garbiak izan arren. Lojika sinplekoa. Konplejorik gabea. Gizarajo koittadu bat, esaten ebenez...

Pototo, berriz, ikasia izan arren, barruko askatasunik gabe ebillen. Beti lotuta. Beti zer esango ebenari begira. Beti iñoren bizkarretik parre egiteko prest, eta, besteek bere bizkarretik egingo zuten bildurrez...

Orra or gure "istorio-mistorio" auen personajeen nortasuna agertu.

Orra or geure gizonok.

Emendik aurrerakoak eurori bizi-bidean gertatutakoak dozuz. Naasian daude; bañan, bizitzako gertakizunak be, naastuta gertatzen zaizkigu.

—Bañan, Anes, mesedez, gaurko egunean (1968) goimaillako kultura bear dogunean, oiek al dozak Euskalerria'ri eskeintzeko "istorio mistorioak"?